## PATINAJEAREN ARAU ESPEZIFIKOAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

## 1. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren izena.

LINEA HOCKEYA-PATIN HOCKEYA-PATINAJE ARTISTIKOA-ABIADURA PATINAJEA-SKATEBOARD-ROLLER FREESTYLE-SCOOTER

## 2. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren joko-erregelamenduak.

LINEA HOCKEYA

**a.** Ohiko araudiarl jarraituz garatuko dira, honako doikuntza hauek ezarrita:

- Jokalari-kopurua partidako denboraren arabera murriztea, aulkietan leku handiagoa izateko:
    - 5 jokalari (atezain bat) eta pistako beste 5 jokalari bakarrik egon ahal izango dira aulkian.
    - Bigarren aldian, 4 jokalari ordezkatu ahal izango dira gehienez, eta 4 ordezko berri ere sartu ahal izango dira, eta 4 erretiratu, "dutxara" joango direnak.
    - Horrela, partida bakoitzean gehienez 3 lerro eta bi atezainek parte hartu ahal izango dute. Baina inoiz ez aldi berean.
    - Jokalariez gain, entrenatzailearen presentzia bakarrik onartuko da aulkietan.
    - Entrenatzaileari bakarrik utziko zaio aulkian egoten, eta taldearen ordezkaria inguruan egon daiteke, baina inoiz ez aulkiko jokalarien ondoan.
- HL bidezko hidratazioaren beharra etengabea da, eta jokalari-aldaketa bakoitzean gertatzen da (2 minuturo, gutxi gorabehera). Partida bakoitzean ur asko kontsumitzen da eta botilak behar dira aulkietan. Hidratazioko ur-botilak jokalariaren dortsalarekin markatuko dira.
- Protesta edo erreklamazioetan, taldeko kapitainak edo laguntzaileek bakarrik jo ahal izango dute arbitroarengana, 2 metroak nahitaez mantenduz.

MASKARAREN ERABILERA LEHIAKETAN ETA ENTRENAMENDUETAN

| | JARDUERA AURRETIK | JARDUERA BITARTEAN | ATSEDENALDIAN | JARDUERA ONDOREN |
|---|---|---|---|---|
| KIROLARIAK | BAI | EZ | EZ | BAI |
| TEKNIKARIAK | BAI | EZ | EZ | BAI |
| EPAILEAK ETA ARBITROAK | BAI | EZ | EZ | BAI |

PATIN HOCKEYA

**a.** Ohiko araudiarl jarraituz garatuko dira, honako doikuntza hauek ezarrita:

- Aulkietan leku gehiago izatea.
    - Entrenatzaileari bakarrik utziko zaio aulkian egoten, eta taldearen ordezkaria inguruan egon daiteke, baina inoiz ez aulkiko jokalarien ondoan.
- Protesta edo erreklamazioetan, taldeko kapitainak edo laguntzaileek bakarrik jo ahal izango dute arbitroarengana, 2 metroak nahitaez mantenduz.

MASKARAREN ERABILERA LEHIAKETAN ETA ENTRENAMENDUETAN

| | JARDUERA AURRETIK | JARDUERA BITARTEA | ATSEDENALDIAN | JARDUERA ONDOREN |
|---|---|---|---|---|

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | N | | |
| KIROLARIAK | BAI | EZ | EZ | BAI |
| TEKNIKARIAK | BAI | EZ | EZ | BAI |
| EPAILEAK ETA ARBITROAK | BAI | EZ | EZ | BAI |

PATINAJE ARTISTIKOA

**a.** Ohiko araudiarl jarraituz garatuko dira, honako doikuntza hauek ezarrita:

- Berotze-taldeko patinatzaile kopurua murriztuko da, txapelketa egiten den pistaren neurrietara egokituta, eta bertan ez dira inoiz egongo ZORTZI baino gehiago.
- Pistara berotze-talde horretan dauden patinatzaileak bakarrik sartu ahal izango dira; sarrera hori aurreko taldeko patinatzaile guztiek beren jarduna amaitu izanaren mende egongo da.
- Pistaren ertzean ENTRENATZAILE BAT ETA KLUB BAKOITZEKO ORDEZKARI BAT bakarrik egon ahal izango dira, eta parte-hartzaile bakoitzak bere ariketa egin ondoren alde egin beharko du pistatik.

MASKARAREN ERABILERA LEHIAKETAN:

| | JARDUERA AURRETIK | JARDUERA BITARTEAN | ATSEDENALDIAN | JARDUERA ONDOREN |
|---|---|---|---|---|
| KIROLARIAK | BAI | EZ | BAI | BAI |
| TEKNIKARIAK | BAI | EZ | BAI | BAI |
| EPAILEAK ETA ARBITROAK | BAI | BAI | BAI | BAI |

MASKARAREN ERABILERA ENTRENAMENDUETAN:

| | JARDUERA AURRETIK | JARDUERA BITARTEAN | ATSEDENALDIAN | JARDUERA ONDOREN |
|---|---|---|---|---|
| KIROLARIAK | BAI | EZ | BAI | BAI |
| TEKNIKARIAK | BAI | EZ | BAI | BAI |

ABIADURAKO PATINAJEA

**a.** Ohiko araudiarl jarraituz garatuko dira, honako doikuntza hauek ezarrita:

- Parte hartzeko edukiera murriztea, agertokietan gehienez 25 pertsona patinatzeko.
- Berotzeko unean 25 patinatzaile sartu ahal izango dira pistan berotzen egoteko.
- Aulkiak zehaztea, patinatzaile bakar bat ere ez dadin eserita egon segurtasun-tartea izan gabe.
- Hidratazioa patinak aldatzeko eremu mugatuan mantentzea eta ahalik eta kontaktu txikiena saihestea.
- Kasu batzuetan, entrenatzailea edo ordezkaria bi kasuetan sartu ahal izango da agertokian, gurasoei parte-hartzaileei patinak jartzen laguntzeko sartzen utziko zaie, baina inola ere ez semea edo alaba ez den beste bati laguntzeko, autoan jardunera eraman ez badu; kasu horretan, aitak edo amak semeari edo alabari lagunduko dio eta harmailetan eseri beharko du; inola ere ezin izango da osasun-batzordeak zehaztutako eremutik atera.
- Taldeko ohiko lasterketen ordez, distantzia desberdinetako banakako erlojupekoak egingo dira eskola-kategoria guztietan.

MASKARAREN ERABILERA LEHIAKETAN ETA ENTRENAMENDUETAN

| | JARDUERA AURRETI | JARDUERA BITARTEA | ATSEDENALDIAN | JARDUERA ONDOREN |
|---|---|---|---|---|

| | K | N | | |
|---|---|---|---|---|
| KIROLARIAK | BAI | EZ | BAI | BAI |
| TEKNIKARIAK | BAI | BAI | BAI | BAI |
| EPAILEAK ETA ARBITROAK | BAI | BAI | BAI | BAI |

## 3. Kirol-federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduera-arauak.

LINEA HOCKEYA

a. **MATERIALAREN ERABILERA KOMUNA:** Konoak, puck-ak, ekipo bakoitzaren staff-ak.
- Erabili aurretik eta ondoren desinfektatzea.
- Pertsona bati aginduko zaio zeregin hori betetzea.
- Era berean, pertsona bera arduratuko da materiala jartzeaz eta biltzeaz.

PATIN HOCKEYA

a. **MATERIALAREN ERABILERA KOMUNA:** Konoak, pilotak… Ekipo bakoitzaren staff-ak.
- Erabili aurretik eta ondoren desinfektatzea.
- Pertsona bati aginduko zaio zeregin hori betetzea.
- Era berean, pertsona bera arduratuko da materiala jartzeaz eta biltzeaz.

PATINAJE ARTISTIKOA

a. Ordezkarien/entrenatzaileen bilerak megafonia-sistemaren bidez egingo dira, bai eta interes orokorrekoa den edozein komunikaturen bidez ere.
b. Ekitaldia antolatzen duen kluba arduratuko da musika-ekipoa desinfektatzeaz, bai proba egin aurretik, bai ondoren.
c. Saioko epaileen arteko distantzia bi metrokoa izango da epaile bakoitzaren artean. (Praktika-aldian dauden epaileak betekizun horretatik salbuetsiz; azken horiek maskara jantzi beharko dute, bai haiek, bai probak iraun bitartean eurak zaintzen dituzten epaileek ere).
d. Epaile bakoitzak etxetik ekarri beharko du beharrezko materiala (txilibitua, kronometroa eta dagokion federazioak posta elektronikoz emango dizkion orriak). Berdin jardungo da megafonia eta kalkulagailuen kasuan.

ABIADURAKO PATINAJEA

a. **INFORMAZIO-BILERAK:**
- Lehiaketa-sistema azalduz gero, deialdi guztiak, irteera-lerroak eta proba-ordena on-line bidali behar ditugu.
- Dortsalak emateko, ordezkari bakoitzari dagokion zenbaki-paketea emango zaio, baina ez da inoiz pertsona bat baino gehiago joan behar klub bakoitzeko.
- Erreklamazioen kasuan, klub bakoitzeko ordezkariaren bidez baino ez.
- Informazio-bilerak zortzi laguneko talde txikietan egingo dira, eta lasterketen edo proben ordenan aldaketaren bat izanez gero bakarrik egingo dira.

b. **EPAILEAK:**
- Epaileek segurtasun-distantziari eutsi behar diote beti, inola ere ezin izango dute partekatu honako materiala: txilibitua, kronometroa, orriak eta epaitzeari dagokion guztia.
- Beste epaile batekin egon behar duten eta segurtasun-distantzia mantentzea lortzen ez duten epaileek maskara jantzi beharko dute.
- Megafonian dagoen epaileak ezin izango du inolaz ere mikrofonoa partekatu; beraz, megafoniaren epaile arduradun bakarra egongo da. Behin praktika amaituta, megafonia desinfektatzeko ardura izango du.

SKATEBOARD-ROLLER FREESTYLE-SCOOTER

a. MATERIALAREN ERABILERA KOMUNA: giltzak, etab. Talde bakoitzaren staff-ak.
- Erabili aurretik eta ondoren desinfektatzea.

MASKARAREN ERABILERA LEHIAKETAN ETA ENTRENAMENDUETAN

| | JARDUERA AURRETIK | JARDUERA BITARTEAN | ATSEDEN ALDIAN | JARDUERA ONDOREN |
|---|---|---|---|---|
| KIROLARIAK | BAI | EZ | BAI | BAI |
| TEKNIKARIAK | BAI | EZ | BAI | BAI |
| EPAILEAK ETA | BAI | BAI | BAI | BAI |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ARBITROAK | | | | |

## 4. Erakunde parte-hartzaileen barruan egin beharreko entrenamendu eta saioetarako jarduera-arauak.

LINEA HOCKEYA ETA PATIN HOCKEYA

a. **ENTRENAMENDU AURREKO ETA ONDORENGO JARDUNAK**

- Kirolari guztiek, bereziki beheko kategoriek, kirol-jarduerarako jantzita iritsi behar dute partzialki.
- Ekipoa janzten amaitzeko, irristailuak, babesak, etab. jantzi behar dira; baldin eta ez badago behar adina aldagela edukiera arautuak errespetatuz, pistaren kanpoaldean nahikoa jesarleku gaitu ahal izango dira, distantziak errespetatuz jarduerarako ekipoa janzten amaitu ahal izateko.
- Ekipazioaren zati bat instalazioetan gordeta utziz gero (stickak, patinak, kaskoak, babesak), kirolari bakoitzak horretarako homologatutako hautseztagailu desinfektatzailearekin desinfektatu beharko ditu aldez aurretik.
- Izendatutako klubaren arduradunak kontrolatu beharko du ekipazio horien biltegiratze-lekurako sarbidea, taldekatzerik edo pilaketarik sor ez dadin. Erabilera bakoitzaren aurretik eta ondoren, eremua desinfektatu beharko da.

b. **JARDUNAK ENTRENAMENDUA IZAN BITARTEAN**

- Eremuak fisikoki bereizi konoen edo antzekoen bidez, talde txikiekin entrenamendu espezifikoak egiteko.
- Hobe da, ahal den neurrian, pantailadun kaskoak erabiltzea, saretadun klasikoen ordez.

PATINAJE ARTISTIKOA

a. **ENTRENAMENDU AURREKO ETA ONDORENGO JARDUNAK**

- Kirolari guztiek kirol-jarduerarako behar bezala jantzita iritsi beharko dute esparrura, eta patinak aldageletan edo antolatzaileek horretarako prestatutako guneetan bakarrik jantzi ahal izango dituzte.

ABIADURAKO PATINAJEA

a. **ENTRENAMENDU AURREKO ETA ONDORENGO JARDUNAK**

- Kirolari guztiek behar bezala jantzita iritsi behar dute kirola egitera.
- Ekipoa janzten amaitzeko, irristailuak, babesak, etab. jantzi behar dira; baldin eta ez badago behar adina aldagela edukiera arautuak errespetatuz, pistaren kanpoaldean nahikoa jesarleku gaitu ahal izango dira, distantziak errespetatuz jarduerarako ekipoa janzten amaitu ahal izateko.
- Aurretik eta ondoren, derrigorrezkoa da maskara erabiltzea ekipatzen garen bitartean.
- Instalazioetan gordetako konoak eta baloiak erabiltzen badira, desinfektatu egin behar dira materiala erabili aurretik.
- Izendatutako klubaren arduradunak kontrolatu beharko du ekipazio horien biltegiratze-lekurako sarbidea, taldekatzerik edo pilaketarik sor ez dadin. Erabilera bakoitzaren aurretik eta ondoren, eremua desinfektatu beharko da.

b. **JARDUNAK ENTRENAMENDUA IZAN BITARTEAN**

- Gehienez hamar pertsonako talde murriztuak egitea.

SKATEBOARD-ROLLER FREESTYLE-SCOOTER

a. **MATERIALAREN ERABILERA KOMUNA:** giltzak, etab. Talde bakoitzaren staff-ak.

- Erabili aurretik eta ondoren desinfektatzea.